

Donostia, 2016ko maiatzaren 20a

IDAZKARI NAGUSIARI

ANTENEN ORDENANTZA BERRIARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, 2016ko maiatzaren 16an PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiak 2016ko martxoaren 21ean emandako 47/16 Epaiak dioenez, udal eskumena da telefonia mugikorren udal barrutiko antenak arautzea, eta, ondorioz, ezeztatu egiten ditu Industria Ministerioaren alegazioak, udalak eskumenik ez duela diotenak.

Horrek frogatzen du antenen ordenantza berriaren blokeoa justifikatzeko orain arte erabili den argudioak ez duela zentzurik. Epaia, hain zuzen, antenen ordenantza berria egiteko oinarri gisa erabilitako arrazoibidearen ildo berean doa, eta hura landu duen abokatu espezialistak egiten duen arrazoibidearen ildo berean.

Ikusita epaiak egoera berri bat ekarri duela eta aldatu egin dela antenak arautzeko udal eskumenaren inguruan den indar harremana, uste dugu egingarria eta logikoa dela antenen ordenantza berria, Udalbatzak 2015eko apirilaren 30ean hasierako onarpena eman ziona, izapidetzen jarraitzea.

Epaia itzuliz, magistratuari errekurtsio-jartzaileen lehenengo bi eragozpenak baiestea falta izan zaio soilik, hau da:

- enpresak ez duela hirian antenak zabaltzeko planik
- eta ez dela ingurumen eraginaren bana-banako ebaluaziorik egin.

Egun indarrean dagoen ordenantzak –hots, 2002koak– zehazten duenez, hedapen plan hori ezinbestekoa da edozein antena instalatu ahal izateko (3. artikulua) eta ingurumen eraginari buruzko ebaluazioa nahitaezkoa da “ingurumen aldetik sentikorrek diren eremuetan” (6. artikulua). Hau da, ezinbesteko bi elementu horiek aintzat hartu gabe eman da baimena ingurumen aldetik sentikorra den alde batean antena jartzeko.

Eta hori oso harrigarria da. Anomalia bat da, eta, logikoki, anomalia bat aurkitzean, besterik ba ote den ikustea izaten da lehenengo erreakzioa. Batez ere, kontuan hartuta, Antenarik Ez kolektiboak



kalkulatutakoaren arabera, hirian 500 antena inguru daudela eta Udalak bere erregistroetan 200 antena baino gutxiago dituela zenbatuak.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

- 1.Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari har dezala oinarritzat duela gutxi ateratako epaia eta jarrai dezala izapidetzen ordenantza berria, Udalbatzak 2015eko apirilaren 30ean, kontrako botorik gabe, hasierako onarpena eman ziona.
- 2.Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eman diezaiela udal taldeei hedapen plan guztien berri, bai eta telefonia mugikorreko enpresek orain arte aurkeztu dituzten ingurumen eraginaren bana-banako ebaluazio guztien berri ere.
- 3.Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari zorrotz azter ditzala udal barrutian dauden antena guztien instalazio baldintzak, indarrean den ordenantza betetzen ote duten ikusteko.

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia